

2016, 2017 eta 2018ko superabitaren aplikazioa eta 2019rako aurrekontu luzatuaren aldaketak, Diruzaintzako geldikinekin finantzatuak. Behin betiko onespena.

Behin Udaleko Osoko Bilkurak, legezko den quorumarekin, bi mila eta hemeretziak maiatzaren 9an hasiera batez onetsirik, eta jendaurreko epea inolako erreklamaziorik gabe iragan eta gero, behin betiko onetsita gelditu dira 2016, 2017 eta 2018ko superabitaren honako aplikazio hauek eta Diruzaintzako geldikinekin finantzatutako 2019rako aurrekontu luzatuaren aldaketak, xehetasun hauekin bat:

1.- 2016. eta 2017. urteetako superabitak aplikatzea zorpetze garbiaren maila 1.355.029,62 euroan murrizteko. Superabit horren jatorria da finantzaz bezainbatean jasangarriak diren inbertsioetara hasiera batez zuzenduta zeuden kopuruak azkenean bete ez izana, 943.825,28 euroan eta 411.204,34 euroan hurrenez hurren. Murrizketa hori gauzatuko da 20/91300 Finantza entitateen epe luzeko maileguak izeneko diru-sarrerren partidari jasotako epe luzerako mailegua –Udal-aurrekontuetan 8.813.659,32 euroko kopuruaz aurreikusia– ez kontratatzearen bidez. Superabitaren jomuga hori onestea lehentasunezkoa da eta edozein FJI inbertsio baino lehenago egin behar da.

2.- 2018. urteko superabita –13.755.221,96 euro guztira– honako xede hauetarako eta xehetasun hauekin bat aplikatzea:

2.1.- 105.152,69 euro erabiltzea Hirigintza Gerentziak 2018-19891 erregistro-zenbakiaz jaulkitako fakturan jasota dauden urbanizazio-kuotek sortutako betebeharrak kitatzeko. Horrenbestez, dagokion aurrekontu-aldaketa bat onetsiko da 30/15121/681000 aurrekontu-aplikazioan Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Geldikinaren kargura.

2.2.- 2018. urteko superabitaren 6.316.069,27 euro erabiltzea zorpetze garbiaren maila murrizteko, xehetasun hauekin bat:

2.2.1.- 379.577,48 euro, Txantrean Salestarren eraikinaren erosketari dagokion ordainketa geroratu ezereztearen bidez, Gobernu Batzarrak 2017ko abenduaren 29an hartutako erabakiarekin bat, zeinaren 6. puntuak jasotzen baitzuen kopuru hori 2019ko ekitaldian ordaintzeko betebeharra. Horrenbestez, dagokion aurrekontu-aldaketa bat onetsiko da 30/15220/682020 aurrekontu-aplikazioan Ukitutako diru-sarrerak sortutako Diruzaintzako Geldikinaren kargura.

2.2.2.- 2018. urteko superabitaren 5.936.491,79 euro, 20/91300 Finantza entitateen epe luzeko maileguak izeneko diru-sarrerren partidari jasotako epe luzerako mailegua –Udal-aurrekontuetan 8.813.659,32 euroko kopuruaz aurreikusia– ez kontratatzearen bidez. Superabitaren jomuga hori onestea lehentasunezkoa da eta edozein FJI inbertsio baino lehenago egin behar da.

Hori horrela, guztira 7.671.098,89 euro erabiliko dira zorpetze garbia murrizteko. Haietako 7.291.521,41 euro mailegua ez kontratatzeak (proposamenaren 1. eta 2.2.2 puntuak) eragindakoak dira, eta 379.577,48 euro 2.2.1 puntuaren ordainketa geroratu ezerezteak sortuak.

2.3.- 6.671.000 euro erabiltzea Finantzaz bezainbatean jasangarriak diren inbertsioak egiteko, Udalaren aurrekontuetan egindako aurrekontuko aldaketen bidez, zeinak Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Geldikinekin finantzatuko baitira:

Inbertsioa	Kontzeptua (FJI)	Zenbatekoa	Programa	Ekonomikoa
Emakumeen Etxea	933 Ondare-kudeaketa	300.000	10/23910	622060
Turismo-seinaleak	432 Turismo Inf. eta Sust.	36.000	20/43200	629090
Jarduketa S. Bartolomé gotorleku txikian	432 Turismo Inf. eta Sust.	100.000	20/43200	632090
Labriteko igarobide jasangarria	153 Bide publikoak	300.000	31/15331	609000
Bide hobekuntzak-30 Hiria	153 Bide publikoak	900.000	31/15331	619000
Erdigune-Sanduzelai	153 Bide publikoak	850.000	31/15331	619000
Gune publikoak hobetzeko jarduketak	153 Bide publikoak	840.000	31/15331	619000
Haur jolasak-estalkiak kanpaina	153 Bide publikoak	200.000	31/15332	619000
Taconera. 2. fasea	171 Parkeak eta lorategiak	340.000	31/17100	619000
Larrialdiko etxebizitzak birgaitzea	933 Ondare-kudeaketa	1.000.000	31/92062	622020
Berritze-lanak Caldereria aretoko komunetan	933 Ondare-kudeaketa	60.000	31/92062	632010
Fusilatuen panteoia handitzeko lanak	933 Ondare-kudeaketa	50.000	40/16400	632090
Hiri-baratzeak	172 Ingurumenaren babesak eta hobekuntza	30.000	40/17212	609000
Obrak ikastetxe publikoetan	323 Ikas. funtz.	710.000	50/32320	632040
Berritze-lanak Donibaneko Auzo Unitatean	231 Oin. Laguntza-Gizarte Zerb.	150.000	70/23110	632060
Hobetze-lanak Komunitate Guneetan	933 Ondare-kudeaketa	300.000	80/33701	632060
Kirol instalazioak	342 Kirol instalazioak	505.000	80/34200	632050
	GUZTIRA	6.671.000		

2.4.- 663.000 euro erabiltzea Finantzaz bezainbatean jasangarriak diren inbertsioak egiteko, Hirigintza Gerentziaren aurrekontuetan egindako aurrekontuko aldaketan bidez, zeinak Hirigintza Gerentziaren Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Geldikinekin finantzatuko baitira:

Inbertsioa	Kontzeptua (FJI)	Zenbatekoa	Programa	Ekonomikoa
Arantzadi ekoparkea. 2. fasea	171 Parkeak eta lorategiak	300.000	17100	619000
Txantrea parkea	171 Parkeak eta lorategiak	363.000	17100	609000

3.- Honako aldaketa hauek egitea 2019ko aurrekontu luzatuan, sortu berri diren behar berri batzuk asetzeko xede harturik, egun 2019ko Aurrekontu luzatuan ez baitago horretarako kreditu egokirik eta nahikorik, Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Geldikinen bidez finantzatua, honako xehakapen hauekin bat:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Kontua	Ekonomikoa
Kalte-ordaina: Tomás Esteban aparkalekua	440.000	20/93300	226990
Balorazio Txostena	33.500	20/93200	227020
Trinitarioseko aparkalekua	30.000	20/43110	226990
Furgoneta elektrikoa mandatarientzat	82.000	21/92000	624000
Urbanizazio kuotak ordaintzea	137.000	30/15121	681000
Lezkairuko Haur Eskolaren proiektua erredaktatzea	90.000	50/32310	622040
Sanferminetarako gastu beharrezkoak	303.574	60/13300	227011
Herritarren Segurtasuneko Alorraren gastuak	196.837	60/13300	227011
Jantoki Soziala	50.000	70/23181	221050
Eguneko zentroa-jantoki soziala abiatzea	50.000	70/23181	227990
Larrialdietarako laguntzak	70.000	70/23181	480000
Eskola-jantokiak	60.000	70/23181	480000
Taxi-bonua.	50.000	70/23181	480000
Elikadura (ELZ)	100.000	70/23183	221050
Desfibriladoreak kirol-instalazioetan	10.000	80/34200	221110
Zentro komunitarioetako ekipamendua	50.000	80/33701	632060
Gaztediaren Etxeko obrak amaitzea	150.000	80/33702	632060
GUZTIRA	1.902.911		

4.- Proposamen honen 2.3, 2.4 eta 3 puntuetako bakoitzean joko da Iruñeko Udalaren eta Hirigintza Gerentziaren –kasuaren arabera– 2019ko Gastuen Aurrekontuan egindako aldaketak lotura kualitatiboa ezarrita gauzatuko direla aurrekontu-erabilerari dagokionez partida berean kontzeptu bat baino gehiago sartuz gero, eta, betiere, Aurrekontua gauzatzeko 10. oinarrian ezarritako zenbatekoarekin bat, gastuaren behin betiko egozpenean aplikazio berriak sortzen diren kasuetarako.

5.- Erabaki honen punturen baten kontra jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztuz gero, Osoko Bilkurak berariaz behin betiko onetsi beharko ditu horiek indarra har dezaten, baina behin betiko berriazko onespén hori ez da beharrezkoa izanen erreklamaziorik jaso ez duten puntuek indarra har dezaten.

Aldaketa hauek ediktu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan hartuko dute indarra.

Iruñean, 2019ko ekainaren 10ean.- Alkate Udalburua, Joseba Asiron Saez